

3. Adieraztea, Ebazpen honen kontra ohizko helegitea paratzen ahal dela Nafarroako Gobernuan hura jakinarazi edo, bestela, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta gehienez ere hilabeteko epean, Administrazio Publikoaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114, 115 eta 116. artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

4. Ebazpen hau Ehiza Barrutian eskubidea duen Titularrari, Ingurugiro Zerbitzura eta Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALERA igortzea, behar diren ondorioak sor ditzan.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita lauak. Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Zuzendari Nagusia, Luis Zarraluqui Ortigosa.

A9303264

EBAZPENA, 1993.eko ekainaren 21ekoa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentuko Zuzendari Nagusiak emana, aurkeztutako agiriaren aldeko kalifikazioa adierazi, eta Nafarroako Erregistro Liburuan 566 NA zenbakia duen "Agopar" Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietatearen idazpena egitea agintzen duena.

Ondoko xedapen hauekin bat heldu da ebazpen hau: Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietateak arautzen dituen abuztuaren 3ko 177/1981 Errege Dekretua; hura garatzen duen 1982.eko irailaren 14ko Agindua; Estatuko Administrazioetik Nafarroako Foru Komunitatera Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietatearen arloko eginkizun eta zerbitzuak eskualdatzeko abenduaren 18ko 2654/1986 Errege Dekretua; Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Departamentura eskualdatutako eginkizun eta zerbitzuak esleitzeko otsailaren 6ko 40/1986 Foru Dekretua, eta Nafarroako Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietatearen erregistroa sortzen duen otsailaren 28ko 71/1986 Foru Dekretua.

Ikusirik, Nekazaritza eta Abeltzaintza Zerbitzuak aldeko kalifikazioa adierazteko egin proposamena eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Kontseilariak 1984.eko ekainaren 4an emandako Foru Aginduen bidez eskuordetu zaizkidan ahalmenak erabiliz, Zuzendaritza Nagusi honen

EBATZI DU:

1. Ondoren aipatzen den Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietateak aurkeztu agiriaren edukia aldeko kalifikazioa eman eta inskripzio liburuan horren idazpena egitea agintzea:

"Agopar" E.N.S., 566 NA zenbakikoa, erantzukizun mugatua eta helbidea Fontellaseko Eras kalean, z/g, dituen.

Sozietatearen helburua: nekazaritzako tresneria elkarrekin erosi eta ustiatzea.

2. Ebazpen honen berri Nafarroako Eraldakuntzarako Nekazaritza Sozietatearen Erregistroari ematea behar diren ondorioak sor ditzan, eta oharartaztea, inskripzioaren laburpena Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALERA igorri beharko dela argitara dadin eta hirugarrenek ezagut dezaten. Halaber, Estatuko Administrazioari horren kopia kautotua igorriko zaio.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita batean. Zuzendari Nagusia, Iñigo Nagore Ferrer.

A9303240

LURRALDEAREN ANTOLAMENDU ETA INGURUGIRO DEPARTAMENTUA. Zehapen espedienteak.

Ezinezkoa suertatu denez, arrantzen arloan indarra duen arauteria hautsi duela eta, Jesús María Vildosola Otero jaunari irekitako 191/1993 zehapen espedientearen Ebazpena eta Kargu Plegua jakinarazteko, Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 80.1 eta 2 artikulua agindu bezala, bidezko da orain honen bidez indarra duen Administrazio Prozedurari buruzko Legearen 80.3 artikuluan xedatutakoa betetzea:

- Salatua: Jesús María Vildosola Otero.
Helbidea: Berriozarko Lekoarte kalea. Viana.
- Arau-hausteen data eta tokia: 1993.eko apirilaren 9an; goizeko 10,20etan, Arga uhodetan, magnesita harrobiaren inguruan.
- Salatutako eginza(k): Berezko amuarekin arrantzen aritzea, debekatutako garaian.
- Hautsitako araua(k): Martxoaren 5eko 2/1993 Foru Legearen 119. 13 artikulua, 22/1993 Foru Legearen 10.f) artikuluari dagokiona.
- Zehapen proposamena: 25.000 pezeta. 122.a) artikulua. 2/1993 Foru Legearen 106. artikuluan ezarritakoarekin bat isunari ken lekiokeena deustan galarazi gabe.
- Kalteordainak: Ez da beharrik.
- Beste zehapen batzuk: 4 ataleko kanabera teleskopikoa, Rutel 7 markakoa eta Auto-2 Olympic markako karretea, kendu egiten zaizkio.
- Piezen eta gaien destinoa: Kanabera eta karretea Lurraldearen Antolamendu eta Ingurugiro Departamentuko gordailuzaintzara bidaliko dira.

Baso Fauna eta haren habitata babestu eta kudeatzeko 2/1993 Foru Legearen 98. artikuluekin bat, 15 eguneko epea ematen zaio bere eskubideen alde jotzeko bidezko deritzen alegazioak egin ditzan.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko maiatzaren hemeretziak. Instruktoaria, Gloria González Varela.

A9302978

NAHITAEZKO DIRUBILKETA. Banku kontuetako diruaren gaineko bahitura eginbideen jakinarazpena.

Honako honen bitartez jakinarazten da ondoren aipatzen diren zordunen aurka banku kontuetako diruaren gaineko bahitura eginbidea agindu dela, honako erreferentzia hauekin:

Zorduna: José Luis Alonso Franco.
Helbidea: Martín Azpilicueta, 13-7. B (Iruña).
Espedienteak: 7274-CE.
Kontzeptua eta Erreferentzia: 90.eko BEZ T02 (2057632-3).
Eginbide data: 1993.eko maiatzaren 21a.
Eginbide zenbakia: 8737.
Zorren zenbatekoa: 60.178 pezeta.
Atxikitako zenbatekoa: 27.829 pezeta.

Zorduna: Ranz Meplast, S.L.
Helbidea: Arga, 4 (Atarrabia).
Espedienteak: 7400-MB.
Kontzeptua eta Erreferentzia: Enplegua sustatzeko laguntza itzulera (2056960-2 eta 2056961-0).
Eginbide data: 1993.eko maiatzaren 26a.
Eginbide zenbakia: 8878.
Zorren zenbatekoa: 1.361.164 pezeta.
Atxikitako zenbatekoa: 175.820 pezeta.

Zorduna: Miguel Turumbay Pérez.
Helbidea: Vadoluengo Monastegia, 2-8. E (Iruña).
Espedienteak: 7356-PE.
Kontzeptua eta Erreferentzia: 1989.eko Ondarea (2197737-8).
Eginbide data: 1993.eko maiatzaren 20a.
Eginbide zenbakia: 8795.
Zorren zenbatekoa: 34.755 pezeta.
Atxikitako zenbatekoa: 34.755 pezeta.

Jakinarazpen hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAREN bitartez egiten da, ez baita erabili ahal izan bahitura eginbidearen arauzko bidea, kasu bakoitzeko jakinarazpenaren agiriaren agertarazten direlarik horren arrazoiak.

Helegiteak: Dirubilketa iharduera hauen aurka Berraztertze helegitea paratu ahal izan da, 15 egunetako epean, Nahitaezko Dirubilketaren Atalburuaren aitzinean, edo Gora Jotzeko helegitea, epe berean, Nafarroako Gobernu Zergei buruzko Txosten eta Ebazpen Organoan.

Premiamenduzko prozedura hau, nahiz helegiterik jarri, ekainaren 12ko 125/1987 Foru Dekretuan (1987.eko ekainaren 22ko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALA) adierazitako baldintza eta eran bakarrik utziko da bertan behera.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hamalauak. Nahitaezko Dirubilketaren Atalburua, José Luis Remón Corrales.

A9302974

OHARRA, Nekazaritzako Egituren Zerbitzuak emana, Mendavia I. aldeko Lurzati Kontzentrazioari buruzko Erabakia jendaurrean jartzen duena.

Mendavia I. aldeko Lurzati Kontzentrazioaren interesatuak direnei, horren onura publikoa apirilaren 3ko 44/1987 Foru Dekretuaren bidez deklaratu baitzen, adierazten zaie.

Lehenbizi. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Zuzendari Nagusiak 1993.eko ekainaren 7an emandako Ebazpenaren bidez, Mendavia I. aldeko Lurzati Kontzentrazioari buruzko Erabakia onetsi zen, proiektuan bidezko ziren aldaketak egin ondoren. Aldaketa horiek 1973.eko urtarrilaren 12ko Nekazaritzaren Erreforma eta Garapenari buruzko Legeak bere 197. artikuluan zehaztutakoari jarraituz Proiektuari buruzko inkestaren ondorioz egin ziren; aldi berean erabaki zen hura argitaratzea, aipatu Lege horren 210. artikulua dioen bezala.

Bigarren. Lurzati Kontzentrazioa egiteko Erabakia jendaurrean jarriko da Mendaviako Udaletxean, Ohar hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik hogeita hamar laneguneko epearen barruan.

Hirugarren. Hogeita hamar laneguneko epe horretan gora jotzeko helegitea paratzen ahal da Nafarroako Gobernuaren, helegiteek berek nahiz bertze batek ordezkatuta aurkez dezaketelarik Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean. Idazkian helbide bat jarriko da komeni diren oharrek egin ahal izateko. Ohartarazi egiten da, 184. artikuluari

buruz aipatu Legearen 214.ak dioenari jarraituz, Kontzentrazioaren Erabakiaren kontra ez dela helegiterik paratzen ahal, hura Oinarrietara egokitzen bada edo haren prestakuntzan agindutako baldintzak oro betetzen badira.

Iruñean, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hamabostean. Nekazaritzako Egituren Zerbitzuko Zuzendaria, José Oroz Uriz.

A9303079

II. NAFARROAKO ADMINISTRAZIO LOKALA

KINTOKO MANKOMUNITATEA

Aurrekontu Bakararen Onespina

Kintoko Mankomunitatearen Batzarreak, 1993.eko ekainaren 17an eginiko ohizko bilkuran, aho batez onetsi zuen 1993.eko Aurrekontu Bakarria.

Ondorioz, alegazioak aurkezteko 15 eguneko epeari hasiera ematen zaio, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita.

Erron, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita hiruak. Mankomunitateburua, sinadura ulertezina.

A9303272

ORKOIE

1993.eko Ohizko Aurrekontua

Orkoiengo Udalak, 1993.eko ekainaren 25ean eginiko bilkuran, erabaki zuen hasiera batez onestea 1993.eko Ohizko Aurrekontua, eta beraz, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 276. artikuluekin bat, Udaletxeko Idazkaritzan egonen da jendaurrean 15 lanegun, Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondotik, herritarrek eta interesatuak espedienteak aztertu eta egokitzea dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal ditzaten. Epe horretan erreklamazioak aurkeztu ezean, behin-betiko onetsi dela ulertuko da.

Orkoienean, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita zortziak. Alkatea, Casimiro Larrea Ruiz.

A9303273

TUTERA

Hirilur Kontribuzioa eta estolderiagatikotasaren ordainketa aldiak, 1993.eko lehenbiziko sei hilabetekoak

Aditza ematen zaie Hirilur Kontribuzioa eta estolderiagatikotasaren subjektu pasiboari Udal Gordailuzaintzan daudela 1993.eko lehenbiziko sei hilabetekoari dagozkion ordainagiriak, eta ondoko hauek dira ordainketa aldiak:

Borondatezko aldia: 1993.eko ekainaren 22tik abuztuaren 31ra.

Borondatezko aldia, %5eko luzapenagatikotas errekarguaz: 1993.eko irailaren 1etik 30era.

Ondoren Derrigorrezko Dirubilketa Agentziari luzatuko zaizkio premiamendu bidez kobratzeko.

Eta hau aditza ematen da Tuteran, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita hiruak. Ekonomia eta Ogasun Zinegotzi Delegatua, César Lizar Ansó.

A9303274

TUTERA

1993.eko Nekazaritzako Iharduaren gaineko Kontribuzioaren ordainketa aldiak

Aditza ematen zaie 1993.eko Nekazaritzako Iharduaren gaineko Kontribuzioaren subjektu pasiboari Udal Gordailuzaintzan daudela 1993.eko lehenbiziko sei hilabetekoari dagozkion ordainagiriak, eta ondoko hauek dira ordainketa aldiak:

Borondatezko aldia: 1993.eko ekainaren 22tik abuztuaren 31ra.

Borondatezko aldia, %5eko luzapenagatikotas errekarguaz: 1993.eko irailaren 1etik 30era.

Ondoren Agentzia Ejekutiboari luzatuko zaizkio premiamendu bidez kobratzeko.

Eta hau aditza ematen da Tuteran, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita hiruak. Ekonomia eta Ogasun Zinegotzi Delegatua, César Lizar Ansó.

A9303275

USKARTZE

1993.eko Aurrekontu Orokorrak Bakararen behin-betiko onespina

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 276.2 artikuluan aurrikusitakoarekin bat, jendaurreko epea erreklamazioak gabe iraganik, behin-betiko onetsi da 1993.eko Aurrekontua, Kontzejuak 1993.eko apirilaren 3an hasiera batez onetsi eta 1993.eko maiatzaren 21eko 63. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratua.

Argitara ematen da orok jakin dezan.

Uskartzen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hemeretziak. Kontzejuburua, José Luis Nagore.

A9303276

VIANA

Arau Subsidiarioen aldaketa puntualaren hasiera bateko onespina

Vianako Udalak, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren 16an eginiko ohizko bilkuran, ondotik osorik ematen den testua duen erabakia hartu zuen:

"Vianako Planeamendurako Arau Subsidiarioetako lanabes etxolen azaleren aldaketa puntuala, 15etik 30 metro karradura, hasiera batez onestea erabakitzea".

Aditza ematen da, hilabeteko epean, Lurzuar buruzko Legearen Testu Birbiduren 114. artikulua aplikatuz, interesatuak espedienteak aztertu eta egokitzea dituzten alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Vianan, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko apirilaren hogeita bederatziak. Alkatea, José Luis Collado Nicolás.

A9303277

ZIZUR NAGUSIA

Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren aldaketa jendaurrean jartzea

Zizur Nagusiko Udalak, 1993.eko uztailaren 1ean egindako Osoko Bilkuran erabaki zuen, Zizur Nagusiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren Aldaketa prestatzeko lanak, planeamendurako irizpide, xede eta itenbide orokorrak zehaztu ahal izateko behar bezain aurreratuak izanik, jendaurrean jartzea hogeita hamar egunez, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen denetik hasita, indarra duen Planeamendurako Erregelamenduen 125.1 artikuluan xedatutakoa betez.

Epe horren barruan, Zizur Nagusiko Udaleko Idazkaritzan, jendaurreko ordutegian, elkarteek, taldeek eta partikularrek aztertu ahaliko dituzte aipatutako lanak bai eta irado-

kizunak egin eta, egoki ikusten bada, planeamendurako alternatibak aurkeztu ere.

Hau aditza ematen da orok jakin dezan eta behar diren ondorioak izan ditzan.

Zizur Nagusian, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko uztailaren biek. Alkate-Udalburua, Luis María Ibero Elía.

A9303367

Malerrekako Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatea

Estatutuak

I. KAPITULUA

Eraketa, izena eta helbidea

1. artikulua. Estatutu hauetako Eraskinaren zerrendan ageri diren Udalek, borondatezko Mankomunitatea eratu dute, Estatutu hauen II. kapituluaren adierazten diren haien eskumeneko zerbitzuak elkarren artean antolatuta eta emateko.

Kide berrien onarpena estatutuak arauari jarraituz egingen da.

Mankomunitate honen antolamendu eta funtzionamendua, Estatutu hauetan xedatutakoari lotuko zaizkio, eta horien ordez, 1990.eko Toki Administrazioari buruzko Legeari, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen Legeari eta udalbatzei aplikatutako dekretuek gainerako legeak edo arauak xedapenei.

2. art. Mankomunitate honek, bere helburuak betetzeko izaera publikoaren erakunde administratiboa izanik, ahalmen juridiko osoa du eta une bakoitzean bere baitan dituen toki erakundearen udal dermioak hartuko ditu.

3. art. 1. Aipatu toki erakundeak Malerrekako Mankomunitatea du izena. Bere egoitza Donezteben du.

2. Dena den, kide den edozein udaletan egin daitezke Mankomunitatearen organo kolegiatuen bilkurak. Batzarre Nagusiak hala erabakita aldatu ahaliko da egoitza.

3. Aurreko puntua bete dadin, udalak beharhutsu daude Mankomunitatearen organo kolegiatuen bilkurak. Batzarre Nagusiak hala erabakita aldatu ahaliko da egoitza.

4. Batzarre nagusiak erabakiko du non kokatu behin-behineko hainbat administrazio zerbitzuren egoitza (idazkaritza, euskararen koordinazioa, kirol koordinazioa, eta abar) behin-betiko ezartzeko tokian bat aurkitu bitartean.

4. art. Bere eskumenen esparruan, Mankomunitateari dagozkio Legean ezarritako ahalmenak.

Tributu kontuko ahalmena tasak edo prezio publikoak eta kontribuzio bereziak ezartzeko bakarrik erabili ahaliko da.

Mankomunitateak lurraldeko erakundeek desjabetzen ahalmena bere mesederako erabili dezaten eskatu ahaliko du, antolamendu juridikoan xedatutakoaren arabera.

II. KAPITULUA

Xedeak

5. art. Mankomunitateak xede hauek izan ditu:

1.-Ingurugiroaren ardura.

1.1. Hiri hondakin solidoen bilketa.

1.2. Hondakin mota bakoitza (txatarra, beira, zaborrak,...) teknika eta aurrekontuen aldetik une bakoitzean egokitzat jotzen diren baliabideez tratatzea.

1.3. Etxeko eta industriako ura edateko moduan jartzea.

1.4. Edateko uraren banaketa sareak zaintzea.

1.5. Estolderiako sareak zaintzea.

1.6. Hondakin urak arazteko instalazioen funtzionamendu eta mantenimenduz arduratu eta falta diren tokietan haiek sortzen bultzatzea.

1.7. Ingurugiroan atzeman daitezkeen kutsadura iturrien zelatan egon eta salatzea.

2.-Gizarte zerbitzuak.

2.1. Gizarte Zerbitzu Oinarizkoa, herriko jende, famili eta taldeei aholku, informazio eta orientazioa emateko gizarte zerbitzuen arloko eskubide, betebeharrak eta baliabideen gainea.

2.2. Hirugarren Adinekoendako Laguntza, Etxez etxeko Laguntza Zerbitzuaren, egoitza, jubilatuen biltoki eta zaharretxeen bidez.

3.-Euskara.

Mankomunitatearen xedea da euskararen diglosi egoera aldatu eta hura normalizatzea. Horretarako, ahaleginduko da:

3.1. Euskararen ohizko erabilpena nahiz ofiziala berreskuratu, garatu eta arautzen elkarbizitzaren esparru guztietan, bai eta irakaskuntzan ere, euskara gure kultur ondarearen funtsezko elementu nagusia denez gero.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen esparruan eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez ematen dituen xedapenen barnean.

3.2. Hiritarrek euskara jakin eta erabiltzeko duten eskubidea babesten eta hori gauzatzeko baliabideak zehazten.

Euskarari buruzko 18/1986 Foru Legearen esparruan eta Nafarroako Gobernuak Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiaren bidez ematen dituen xedapenen barnean.

3.3. Udal esparru juridikoa xede horiekin egokitzen eta Administrazio Publikoari eta enpresa publikoari beren funtzionamendu eta zerbitzuetan euskara gero eta gehiago normalizatzeko deitzen eskatzen.

3.4. Udalaren menpeko zerbitzu eta maila guztietan euskararen erabilpena normalizatzen.

3.5. Mankomunitateko udalen sektore sozial guztien artean behar den koordinazioa garatzen, aipatu xedeak bete-betean lor daitezkeen.

4.-Kirola eta kultura.

Kirol eta kultur iharduerak sustatu eta bultzatzea, eman beharreko zerbitzuen eragina eta emaitza ahalik eta handiena izan dadin kirol eta kultur zerbitzuetan koordinazio egokia eramanen.

5.-Udalaren eskumeneko beste edozein zerbitzu edo iharduera, Mankomunitatearen esparruan interes publiko eta orokorrekoa dela uste bada, kide diren Udalek eskumen hori Mankomunitatearen gain utzi ondotik.

6.-Mankomunitateak aipatu xedeen alde zuzenean edo zeharka lagundu dezaketzen iharduera guztiak egin ahaliko ditu.

Xede horiek eskuratzeko, indarra duen legeriak udalbatzei ematen dizkien eskubide eta ahalmen guztien jabe izan da, bai eta zerbitzuak udalaren esku uztekoa ere.

III. KAPITULUA

Indarra

6. art. Mankomunitate honen iraualdia mugagabea da eta Estatutuak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren aitzina hasiko da funtzionatzen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean xedatutakoari jarraituz.

IV. KAPITULUA

Zuzendaritza eta kudeaketa organoak

7. art. Batzarrea da Mankomunitatearen organo gorena, eta Estatutu hauetan sartutako eskumen eta eskurantzaren jabe da, bai eta antolatamendu juridikoak onartzen dion beste edozeinena ere.

8. art. Mankomunitatea eta bertako toki erakundeak elkarlanean arituko dira beren buru eta alkateen bidez zerbitzuak ahalik eta hobekien ematearren, elkarri behar den informazio, laguntza eta zainketa eskainiz.

9. art. Mankomunitatearen Batzarreak bere kideen artean Mankomunitateburu bat hautatuko du, haren ordezkari izanen dena beste persona fisiko edo juridikoekiko harremanetan, eta gainera, Batzarreak berak edo Estatutuek bere esku utziako eginkizunak beteko ditu.

Halaber, kideen artean buruorde bat hautatuko da, mankomunitateburuaren betebeharrak eta eskurantzak izanen dituen hura kanpoan edo kargua bete gabe dagoenean, hurrengo hautatu bitarte. Kargu horiek herri ezberdinetako ordezkariak beharko dute izan eta Batzarrea eratzeko bilkuran nahiz berritzen denean izendatuko dira.

10. art. Mankomunitatearen Batzarreak Batzorde Iraunkorra sortzea erabakitzerik du, sortzeko erabakian zehazten diren osaketa, eginbehar eta eskumenekin. Estatutu hauen 20. artikuluan eskatzen den "quorumaz" (legezko gehiengo absolutua) hartu beharko da erabaki hori.

11. art. Mankomunitateko Idazkaritzaren eta fondo Kontuhartzailearen eginkizuna, elkartutako toki erakundeetako batean horren ardura duen baten esku utzi ahaliko da, hala eskatuz gero, edo derrigorrez inork ez eskatuz gero. Eskubidea izanen du Mankomunitateak erabakitzen duen lantzia jasotzeko, inoiz ere A mailako hasierako soldatararen ehuneko hamar baina txikiagoa izanen ez dena. Alabaina, Mankomunitateak bere plantilan sartu ahaliko du eginkizun hori dagokion lanpostua, oro har ezarritako moduan bete dadin. Ez du inoiz bertan segitzeko edo lanpostua izateko eskubiderik lortuko. Beharren arabera, funtzionarioak aritu ahaliko dira haien orde. Batzarreak izendatzen duena arituko da bere Kontuhartzaile gisa, eta zerbitzu horren kudeaketa banku entitate edo aurrezki kutxa baten esku utzerik izanen da.

12. art. Nafarroako Toki Administrazioari buruzko Foru Legearen 256. artikuluan xedatutakoaren arabera beteko dira diruzainaren lanpostua eta diruzaintzaren eginkizunak, baina zerbitzu horren kudeaketa banku entitate edo aurrezki kutxa baten esku utzerik izanen da.

V. KAPITULUA

Batzarrea

LEHEN ATALA

Osaketa

13. art. Mankomunitatearen sartutako Udalako ordezkariak osatuko dute Batzarrea, eta zinegotziak beharko dute izan.

14. art. Hauxe da udalbatzen ordezkari-tzaren proportzioa:

a) Eskubidedun 500 biztanle bitarteko herriek, ordezkari bat.

b) 500dik 1.000 bitarteko eskubidedun biztanle dituzten herriek, bi ordezkari.

c) 1.000tik 1.500 bitarteko eskubidedun biztanle dituzten herriek, hiru ordezkari.

d) Proportzio horri jarraituko zaio 1.500 biztanle eskubidedunetik goitiko herrientzat.

Mankomunitateko entitateen ordezkari-tza zehazteko, Batzarrea berritzen denean indarra duen erordari jarraituko zaio biztanleria kontatzeko, Estatistikako Institutu Nazionalak edo organo eskudunak onetsita dituen biztanle eskubidedunen arabera.

Mankomunitatearen sartutako udalbatzek, beren ordezkari tituluarrak izendatzeaz gain, proportzioan dagozkien beste horrenbeste ordezkari izendatu beharko dituzte beren kideen artean, ordezkari gisa, tituluaren partez aritzeko, horiek Mankomunitateak egiten dituen bilera, ekitaldi edo bilkuren batetara ezin joan direnerako.

15. art. Udalbatza bakoitzak bere ordezkariak hautatu eta berrituko ditu librek, eta behartuta daude izendapen horiek berritzera udal hauteskundeak egiten diren aldiro.

Batzarkideren batek, udalbatzen borondatez, berak hala nahita edo beste edozein arrazoiengatik kargua utziz gero, ordezkaria izendatu beharko da hilabeteko epean, kargu uztea gertatzen den egunetik aitzina.

BIGARREN ATALA

Bilkuren erregimena

16. art. Batzarreak ohizko bilkura egingen du bi hilabetetik behin, eta indarra duen arauteriari jarraituz beharko du egin.

Bidezko iruditzen diren ohiz kanpoko bilkurak ere egin ahaliko dira, Batzarburuak nahiz batzarkide ordezkarien heren batek bultzatuta.

17. art. Indarra duen arauteriari jarraituz eta behar adina denboraz egin beharko da bilkura bakoitzarako deialdia, ordezkariak gaiak aztertzeko astia izan dezaten.

Deialdietan bilkuren eguna, ordua eta toki adieraziko dira, bai lehenbiziko deialdian bai bigarrenarena, eta Udalei Igorri ahaliko zaizkie, horiekin beharizuna betetarik uzteko. Udalek Mankomunitatean dituzten ordezkariak Igorri beharko dizkiete.

18. art. Deialdiarekin batera gai zerrenda sartuko da, ordezkariak eztabaidatu beharreko arazoak aztertu ahal ditzaten, eta dokumentazioa batzarkideen eskura egonen da Mankomunitatearen bulegoetan deialdia igortzen den egunetik aitzina.

Mankomunitatearen aktak eta hartzen dituen erabakiak Udalei Igorriko zaizkie, Mankomunitatean dituzten ordezkariak bidaltzeko.

19. art. Udalbatzen erabakien erregimena zuzentzen duen garaian garaiko arauteriari jarraituz hartuko dira erabakiak, ondoko artikuluan xedatutakoa salbu.

20. art. Batzarrea osatzen duten kide eskubidedun legezkotz gehiengo absolutuaren botoa beharko da ondoko kasu hauetan erabakiak hartzeko:

1. Mankomunitateburua, Buruordea, Idazkaria, Kontuhartzaileak eta Gordailuzaina hautatu eta kargutik kentzeko. Horien dieta eta lantzia zehazteko.

2. Zerbitzuen erabiltzailearengan edo Mankomunitatearen funtzionamendu erregimenean eragina duten Ordenantza, Erregelamendu eta Tarifa orokorrak onesteko, haren eskumenekoak izanik.

3. Obra eta inbertsioen urteanitzeko planak onesteko.

4. Kide berriak Mankomunitatean onartzeko.

5. Estatutu hauek aldatzeko.

6. Aurrekontuak onesteko.

7. Mankomunitatearen kontuak onesteko.

21. art. Estatutuak aldatzeko, haiek onesteko erabilitako prozedura bera erabiliko da, Toki Administrazioari buruzko 1990.eko Foru Legearekin bat etorriz.

Batzarrearen proposamena da, aurreko artikuluan eskatutako "quoruma" duena, aldaketa prozesuaren lehen urratsa.

20. artikuluko "quorumaz" onetsitako Estatutuen aldaketak Mankomunitateko kide guztiak behartuko ditu neurri berean.

VI. KAPITULUA

Gobernu Batzorde Iraunkorra

22. art. Mankomunitateburuak, Batzordeburu gisa, eta Batzordekideek, Batzarkide direnak eta Batzarrean hautatuak, osatzen dute gobernuak Batzorde Iraunkorra.

VII. KAPITULUA

Mankomunitateburua, Buruordea eta Langileak

23. art. Mankomunitateburua da batzarrearen hartzen dituen erabakiak betearazteko ardura duen organoa eta alkateen eskurantzaren esku, gehiengo bereziak onetsi behar direnak salbu.

29. art. Mankomunitate eta Batzarreko Buruari dagozkio eginkizun hauek:

1. Mankomunitatearen gobernu eta administrazioa zuzentzea.

2. Mankomunitatearen ordezkaria izatea.

3. Mankomunitatearen organo guztien bilkuretarako deia egin eta haien buru aritzea.

4. Obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea, zenbatekoak Aurrekontuaren ohizko baliabideen ehuneko bostetik goiti edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzeneko kontrolaziorako ezarritako ehuneko berrogeita hamarretik goiti egiten ez duen bitartean, eta, nahiz eta zenbateko hori gainditu, urtebetetik goitiko iraualdia ez izan eta urteko Aurrekontuaren kontsignatutakoa baino kreditu handiagorik behar ez dutenak.

5. Aurrekontuaren proiektuak egitea. Gastuak xedatu, bere eskumenaren mugen barnean, eta ordaintzeko aginduak ematea, dirusarrerak formalizatzen behartzen duten agiriak baimendu eta kontuak ematea, bai eta onetsitako aurrekontuaren arabera garapen eta kudeaketa ekonomikoa ere.

6. Premialdietan ekintza judizial eta ekonomikoak burutzea.

7. Bere izenean eta erantzukizunarekin, Batzarrearen emandako jarraibideen barnean, Mankomunitatearen aferak eskatzen dituzten premiazko neurriak hartzea, eta horien berri ematea Batzarreari, egiten den lehen bilkuran, eta ohiz kanpoko bilkuretarako deialdia egitea, kasuak garrantzi hori baldin badu.

8. Ondasunak dohainik eskuratzeko. Ondasunak kostu bidez eskuratzeko, zenbatekoak Aurrekontuaren ohizko baliabideen %5etik goiti eta zuzeneko kontratazioari aplikatzen zaion %50eko muga orokorretik goiti egiten ez badu.

Ondasunak besterentzea, zenbatekoak zuzeneko kontratazioari aplikatzen zaion %50eko muga orokorretik goiti egiten ez badu.

9. Mankomunitateak egin behar dituen ordaintzetarako agindua ematea, aurrekontuaren kontsignazioen barnean.

5. Mankomunitatearen eskubideen defentsan ekitea, auzitaratua den liskarretan aurka egitea eta era guztietako helegiteak jartzea edozein mota, gradu edo jurisdikzio

auzetan, iharduneko Letratuak haren aldeko txostena eman ondotik.

6. Bere xedeak betetzearren, Udalek legeri jarraituz bere esku uzten dituzten eskurantzak eta eskumen guztiak, maila txikiagoko beste organo batzuei ez badagozkio.

7. Plantila organikoa, lanpostuen zerrenda, lan eskaintza, langileak hautatzeko frogan oinarriak onestea, bai eta funtzionarioak zerbitzutik baztertu eta lan-kontratatutak laneik botatzeko berretsi ere.

8. Kreditu eta bermerako eragiketak hitzartu, barkamena eta luzapena ematea, zenbatekoak ohizko baliabideen %5etik goiti egiten duenean, eta kredituak auzibidez kanpo onartzeko, aurrekontuaren dotazioari ez dagoen bitartean.

9. Zerbitzuak kudeatzeko modua eta udalekotez espedienteak onesteko.

10. Beste Administrazio Publiko batzuek bere gain utzitako eskumenak onartzea.

11. Beste Administrazio Publiko batzuekin koordinatu edo batera lan egiteko hitzarmenak onestea.

12. Gehiengo bereziak onetsi behar diren batzarrearenak izan daitezkeen beste eskumen batzuk eta Legeek espreski bere gain uzten dituztenak.

28. art. Batzarrearenak bere edozein eskurantzaz utzi dezake, osorik edo hein batean, Mankomunitateburuaren edo Gobernu Batzordearen esku, gehiengo bereziak onetsi behar direnak salbu.

29. art. Mankomunitate eta Batzarreko Buruari dagozkio eginkizun hauek:

1. Mankomunitatearen gobernu eta administrazioa zuzentzea.

2. Mankomunitatearen ordezkaria izatea.

3. Mankomunitatearen organo guztien bilkuretarako deia egin eta haien buru aritzea.

4. Obra, zerbitzu eta hornidurak kontratatzea, zenbatekoak Aurrekontuaren ohizko baliabideen ehuneko bostetik goiti edo Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zuzeneko kontrolaziorako ezarritako ehuneko berrogeita hamarretik goiti egiten ez duen bitartean, eta, nahiz eta zenbateko hori gainditu, urtebetetik goitiko iraualdia ez izan eta urteko Aurrekontuaren kontsignatutakoa baino kreditu handiagorik behar ez dutenak.

5. Aurrekontuaren proiektuak egitea. Gastuak xedatu, bere eskumenaren mugen barnean, eta ordaintzeko aginduak ematea, dirusarrerak formalizatzen behartzen duten agiriak baimendu eta kontuak ematea, bai eta onetsitako aurrekontuaren arabera garapen eta kudeaketa ekonomikoa ere.

6. Premialdietan ekintza judizial eta ekonomikoak burutzea.

7. Bere izenean eta erantzukizunarekin, Batzarrearen emandako jarraibideen barnean, Mankomunitatearen aferak eskatzen dituzten premiazko neurriak hartzea, eta horien berri ematea Batzarreari, egiten den lehen bilkuran, eta ohiz kanpoko bilkuretarako deialdia egitea, kasuak garrantzi hori baldin badu.

8. Ondasunak dohainik eskuratzeko.

Ondasunak kostu bidez eskuratzeko, zenbatekoak Aurrekontuaren ohizko baliabideen %5etik goiti eta zuzeneko kontratazioari aplikatzen zaion %50eko muga orokorretik goiti egiten ez badu.

Ondasunak besterentzea, zenbatekoak zuzeneko kontratazioari aplikatzen zaion %50eko muga orokorretik goiti egiten ez badu.

9. Mankomunitateak egin behar dituen ordaintzetarako agindua ematea, aurrekontuaren kontsignazioen barnean.

10. Haren fondo eta ondasunak administrazioa eta azken ekitaldia amaitu eta hurrengo urte naturalaren lehen sei hilabetekoan kontuak ematea.

11. Entitateko egintza eta agiriez luzatzen diren ziurtagiriak bere sinaduraz ikus-onestea.

12. Zerbitzuek behar bezala funtzionatu eta Mankomunitatearen xedeak zuzen bete daitezkeen behar diren gainerako eginkizunak, non ez diren Batzarrearen edo Batzorde Iraunkorraren esku, bai eta Udaletako Alkateei ez dagoen beste edozein ere.

30. art. Mankomunitateburuak bere eskurantzaz orokorrak utzi ahaliko dizkio bai Batzorde Iraunkorrari, taldeko organoa den aldetik, bai edozein batzordekideri ere. Halaber, delegazio bereziak eman ahaliko dizkio edozein Batzarkideri arazo jakin batzuk zuzendu eta kudeatzeko.

31. art. Buruordeak bere gain hartuko ditu Mankomunitateburuaren eginkizunak Estatutuetan arautu bezala dagoenak eta Mankomunitateburuak edo Batzarrearen espreski ematen dizkion jabe ere izanen da. Bere iharduketaren erantzunbeharra izanen du Batzarrearen aurrean.

32. art. Gobernu Batzorde Iraunkorrari dagozkio, Mankomunitateburuari laguntzeaz gain, Batzarrearen edo Mankomunitateburuak ematen dizkion eskurantzaz guztiak, bai eta erregelamendu organikoaren bidez txostenak egin, diktamenak eman, aztertu eta kontrolatzeko bere esku uzten diren eginkizunak ere.

33. art. Hauek dira Mankomunitateko Idazkariaren eginkizunak:

1. Mankomunitateburuari eta Batzarreari informazio eta aholku ematea hartu behar diren ebazpenetan, Estatutuei, Ordenantzei eta indarra duen legeriari jarraituz.

2. Mankomunitatearen korrespondentzia eta agiri guztiak bideratu eta artxibatzea, Mankomunitateburuak horien berri izan eta bere ebazpena eman ondotik.

3. Batzarrearen eginkizunak bilkuren aktak, Mankomunitateburuaren ebazpenak eta Mankomunitateak luzatu behar dituen agiriak idatzi eta baimentzea.

4. Aginduen ziurtagiriak luzatzea, Mankomunitateburuaren oniritzia dutela.

5. Toki Administrazioari buruzko 1990.eko Foru Legean Udaleko idazkariari ematen zaizkionetik Mankomunitateburutzak bere gain utzi eta bidezko diren gainerako eginkizunak.

34. art. Kontuhartzaile eta Gordailuzainaren eginkizunak legezkotz aginduetara eta indarra duten erregelamenduetara moldatuko dira. Idazkariak bete ahaliko du kontuhartzailearen eginkizuna eta Diruzaintza banku entitate edo Aurrezki Kutxa baten esku utzi ahaliko da.

IX. KAPITULUA

Ekonomi erregimena

35. art. Hauek dira Mankomunitatearen baliabide ekonomikok:

1. Bere ondarearen mozkinetik eta zuzenbide pribatutik datozen dirusarrerak.

2. Bereak dituen tributurak. Ordenantza fiskalen bidez arautuko da nola ezarri, antolatuta eta ordainarazi.

3. Foru Komunitateko eta Estatuko tributen partaidetzak.

4. Dirulaguntzak. Zein helburutarako ematen diren, haietarako soilik erabili ahaliko dira, itzulerarik ez duten soberakinak salbu, horrelakorik izanez gero, eta ematen direnean erabiltzerik aurrikusita ez badago.

5. Hitzartutako kreditu eragiketen etekina.

6. Isun eta zehapenen etekina.

7. Irizpide objektibo eta proportziozkoen arabera kide diren entitatei ezar dakizkiekeen ekarpen orokor edo berariazkoak.

8. Zuzenbide publikotik datozen gainerako laguntzak.

36. art. Zerbitzuak ematearen truke jasotzen diren dirusarrerakin eta Toki Ogasunen arauterian bildutako beste ekarpen batzuekin ordainduko dira Mankomunitatearen administrazio antolamenduak funtzionatzeko dituen gastuak.

37. art. Mankomunitatearen kide diren Udalak behartuta daude aurrekontuaren exekuziotik datozen zor eta betebeharren erantzule izatera, Mankomunitateak ordaintzen ez dituenen.

Mankomunitateak kitatzen ez dituen betebeharrak eta zorrak Mankomunitateko kideen artean banatuko dira, udal bakoitzak eguneratua duen biztanleen azken errolda zein den, haren proportzioan.

Mankomunitateko kide diren Udalek beren balabide eta jabetza guztiak dituzte hark sortzen dituen zor guztien bermerako, Estatutu hauetan xedatutakoaren arabera dagokien proportzioan.

Hori dela eta, baimena ematen diote Nafarroako Gobernuari dagozkien transferentzietatik Mankomunitateari zor dizkioten zerbitzuek ken ditzan, hari ordaintzeko. Halaber, eragiketa bera egiteko baimena ematen diote, Mankomunitateak errekerimendua egin ondotik, kide diren Udaletako balabideak eskuratzen ari den edozein entitate nahiz pertsona juridikori.

38. art. Idazkari-Kontuhartzaileak eskuratu eta kontabilizatzeko dituzten zerbitzuaren dirusarrera eta gastuak. Batzarrearen ematen dituzten kontuak balantzea eginez.

Zerbitzuaren gastu guztiak, obra eta instalazioen ohizko mantenimendua, langileen lantziak eta hiltzarturiko gainerako betebeharrak ordaindu ondotik soberakinak bada, gerakin hori hurrengo ekitaldiko aurrekontura igaroko da.

39. art. Zein zerbitzu edo iharduera finantzatzeko ezartzen diren obligazioak eta egiten den horien bilketa, haietarako izanzen dira Mankomunitatearen dirusarrerak.

Ez da inolaz modurik banatuko mankomunitatean sartutako kideen artean. Mozkinak tarifak gutxiago igo edo murrizteko izanzen dira, edo erreserba fondoak eratzeke izanzen da, zabalkuntza berrietarako.

X. KAPITULUA

Ondasunak

40. art. Jabetza publikoko ondasunek edo ondarekoek, dagozkion eskubide eta akzioek osatzen dute Mankomunitatearen ondarea.

41. art. Erabilpen edo zerbitzu publikorako higiezinak dira Mankomunitatearen jabetza publikoko ondasunak, bai eta Legeak horrela aitortzen dizkionak ere.

42. art. Bere ondasunei dagokienez, Legeak Toki Erakundeel orokorrean aitortzen dizkien ahalmenak ditu Mankomunitateak.

XI. KAPITULUA

Kideak sartzeko eta ateratzeko eta Mankomunitatea desagitea

43. art. Batzarrearen zehaztutako zuzendaritza eta berdintasun irizpideei jarraituz, Mankomunitatean sartu ahaliko dira horren eskaera egiten duten udalak.

Udal batek sartzeko eskaera eginik, izapide hauek bete behar dira:

a) Sartzearen aldeko Batzarrearen txostena, gehiengo absolutuak sartzearen alde emandako botoaz erabakia.

b) Jendaurreko epea, 15 laneguneko.

c) Epe hori alegaziorik aurkeztu gabe iraganez gero, behin-betikoa izanzen da atxiki-pena. Bestelakoan, quorum berberaz, aurkeztutako erreklamazio edo iradokizunak ebatzi beharko ditu Batzarrearen eta behin-betiko erabakia hartu.

44. art. 1. Aurreko artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz onartu ahaliko da barrenean sartutako Entitatearen batek alde egitea. Horretarako, eskatzaileak bermatu beharko du zuzen emanen dituela zerbitzuak eta modu egokian egiten dituela bere esparruko iharduerak, berak alde egitearekin Mankomunitatearen interes orokorrean kalterik eragin gabe eta hari zerbitzu ematen segitzeko galarazi gabe.

2. Batzarrearen erabakian zehaztutako Mankomunitatearen eta alde egiten duen entitatearen ondasun, eskubide eta betebeharrak banaketak dakartzen ondorioak.

3. Banaketaren baldintzak Mankomunitatearen xedeko irizpide tekniko edo ekonomikoak buruzkoak izanzen dira.

4. Kide den entitatea ez da erabat bereiziko, harik eta indarra duen aurrekontua amaitu bitarte.

5. Jarritako ondasunak itzultzea, kalteordain ekonomikoak eta Mankomunitateak bere kideekin duen beste edozein betebeharrak ezin izanen da eskatu Mankomunitatea behin-betiko desegiten ez den arte.

XII. KAPITULUA

Estatutuen aldaketa eta Mankomunitatea desagitea

45. art. Legez ezarritako arauak lotuko zaie Estatutuen aldaketa.

Aldaketaren xedea Mankomunitatearen antolamendu edo funtzionamendua indarra duen legeriari egokitzea soilik beste helbururik ez badu, nahikoa izanzen da Batzarrearen onestea kideen gehiengo absolutuak horren alde emandako botoekin.

46. art. Mankomunitatea erabat nahiz zati batean desegiteko Estatutuak aldatzeko ezarri diren izapide berak beharko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenbizikoa.-Udalek beren ordezkariak izendatu beharko dituzte Estatutuak onesten dituzten bilkura berean.

Bigarrena.-Estatutuak Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen direnetik hamabost eguneko epean deituko zaie ordezkari guztiei eraketa bilkurara etor daitezen, bertan kargu pertsonalak hautatzeko, nahiz eta Batzarrearen ustez premiazkoagoak diren beste gai batzuek ere eztabaidatu ahaliko den.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratzen dira Malda-Erreako Mankomunitatearen Estatutuak, 1988.eko urtarrilaren 29ko bilkuran Batzarre Nagusiak onetsi zituenak.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek 46 artikulua, bi xedapen iragankor eta xedapen indargabetzaile bat dituzte, eta onepeneraren egunean Mankomunitatekoak dira Doneztebe, Oitz, Urrotz, Beintza-Labaien, Donamaria, Saldias, Eratsun, Ezkurra, Zubietza, Ituren, Elgorriaga, Sunbilla eta Bertizaranako Udalak.

A9303204

AGOITZ

Akats zuzenketa

Aurtengo ekainaren 25eko 78. Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen oihan enkanterako iragarkian akatsik badagoela ohar-turik, ondotik ematen da behar den zuzenketa:

"1. lotea.-274 makal, 5.300 metro kubiko zur egiten dutenak". dioen tokian esan behar du "1. lotea.-274 makal, 154,92 metro kubiko zur egiten dutenak".

"2. lotea.-136 makal, 5.900 metro kubiko zur egiten dutenak". dioen tokian esan behar du "2. lotea.-136 makal, 131,92 metro kubiko zur egiten dutenak".

Agoitzen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita zortzian. Alkatea, José Manuel Gárriz.

A9303287

FALCES

Makalen oihan enkantea

Udal honek, Nafarroako Gobernuaren baimenaz, plegu itxiaren bidezko enkanterekin salgai jarriko du honako oihan probetxamendu hau:

Lote bakarra.-2.087 makal, 1.394 metro kubiko zur egiten dutenak. Hasierako prezioa: 9.271.962 pezeta.

Iragarki honen amaieran dagoen ereduari lotutako proposamenak, Udal Gordailuzaintza hasierako prezioaren %2 (185.439 pezeta) ordaindu izanaren egiaztatzea eta Enpresa Kalifikazioaren Agiria, jatorrizkoa edo fotokopia, notariak edo administrazioak konpultsatuta, Udal honetako Erregistro Orokorrean aurkeztuko dira, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hasita hamabost laneguneko epeaz, eguerdiko hamabiak baino lehenago. Udaletxean irekiko dira proposamenak, hurrengo laneguneko hamabietan.

Baldintza fakultatiboak eta ekonomiko-administratiboak ikusgai daude Udal Idazkaritzan jendearendako ordutegian, interesatuek azter ditzaten.

Falcesen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita zortzian. Behin-behineko alkatea, M.^a Dolores Lasheras Zubiri.

PROPOSAMEN EREDUA

..... J/A-k,(e)koa, kalean helbidea duena eta Enpresaren Kalifikazio Agiria zk.dunaren jabe, eko Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN iragarritako oihan enkanteraren lote bakarraren truke (letraz eta zenbakiz) pezeta eskaintzen du Falcesko Udalak ezarritako baldintza ekonomiko administratiboak eta Nafarroako Gobernuarenak ere onartzen dituelarik.

(Data eta sinadura)

A9303288

10. Eskualdeko Hiri Hondakin Solidoak Kudeatzeko Mankomunitatea

Lehiaketak irekia

Xedea: 10. Eskualdeko Hiri Hondakin Solidoak Bildu, Garraiatu, Tratatu eta Deuseztatze Zerbitzuak esleitzeko Lehiaketa.

Proposamenen aurkezpena: lehiaketan parte hartzeko proposamenak gutunazal itxitan aurkeztuko dira Mankomunitatearen Egoitzan, Agoizko Kale Berrian, 22, abuztuaren 16ko ordu bata baino lehen.

Behin-behineko fidantza: Lehiaketan parte hartzeko beharrezkoa izanzen da egiaztatzea,

agiriaren bidez, Mankomunitatearen Gordailuzaintza 240.000 pezeta utzi izana.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: lehiaketa arautzen duten Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguan dagoena.

Proposamenak irekitzea: aurkeztutako proposamenak ireki eta agiriak aztertuko dira Mankomunitatearen Egoitzan, jendaurreko ekitaldian, datorren abuztuaren 17ko ordu batean.

Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Plegua eta gainerako dokumentazioa lizitazioaren esku dago, azter dezaten, Mankomunitatearen bulegoetan, Agoizko Kale Berrian, 22, eta bertan ere izanzen da proposamen ereduaren interesatuen eskura.

Agoitzen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita zortzian. Mankomunitateburua, José Manuel Gárriz Vizcay.

A9303289

ALTSASU

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hori garatzen duen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hamabost egunez, ondotik aipatzen den espedienteak, ukituak gertatzen direnek egoki jukatzaren dituzten oharrek egin ditzaten.

Eskatzailea: Cristóbal Bengoetxea Saez de Maturana. Iharduera: Argazki denda (jartzea). Tokia: Donibane kalea, 15.

Altsasun, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita biam. Alkatea, José Manuel Goikoetxea.

A9303205

BERA

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hori garatzen duen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta bihamunetik hamabost egunez, ondotik aipatzen den espedienteak, ukituak gertatzen direnek egoki jukatzaren dituzten oharrek egin ditzaten.

Eskatzailea: Talleres Mecánicos Elkar, S.A. Iharduera: Taler mekanikoa (handitzea). Tokia: Zalaín Auzoa.

Beran, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita bostean. Alkatea, Manuel Iriarte Huarte.

A9303206

BERA

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hori garatzen duen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Alkatetzaren ebazpenaren bidez lizentzia eman

zaila ondotik aipatzen diren ezaugarriak dituen iharduerari:

Lizentzia eman zen eguna: 1993.eko ekainaren 19a. Eskatzailea: David Domínguez Fernández. Iharduera: Ostata. Tokia: Zalaín auzoa, Endarlatsa parajea.

Beran, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hemeretziaren. Alkatea, Manuel Iriarte Huarte.

A9303207

ZARRAKAZTELU

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hori garatzen duen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Erregelamenduan xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Alkatetzaren ebazpenaren bidez lizentzia eman zaila ondotik aipatzen diren ezaugarriak dituen iharduerari:

Lizentzia eman zen eguna: 1993.eko ekainaren 9a. Eskatzailea: Ayra, S.A. Iharduera: Transmisioak eraldatu eta birmoldatzea. Tokia: Olbar-Caparroso, 1. km.

Zarrakaztelun, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hamarrean. Alkatea, Jesús Gomollón Pérez.

A9303208

CASTEJON

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean eta hura garatzen duen otsailaren 15eko 32/1990 Foru Dekretuan xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabost egunez, ondotik aipatzen den ihardueraren gaineko espedienteak, epe horretan ukituak gertatzen direnek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Eskatzailea: Construcciones Especiales MYD, S.L. Iharduera: Kontserben industriarako tresneria egitea. Tokia: Merinaldeak kalea, 46.

Eta hau aditza ematen da orok jakin dezatan.

Castejonon, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita bostean. Alkatea, Juan José Paredes Pérez.

A9303209

TAFALLA

Iharduera sailkatua

Ikusirik herri honetako Nafarroako Plazako 1, 2, 3 eta 4 zenbakietan eta Mutuberria kaleko 1. zenbakian jabetze bat paratzeko Ascensión Jiménez Esquiroz andrearen bultzaturiko iharduera lizentzia lortzeko eskabidea.

Ikusirik, halaber, Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuko Zuzendar Nagusiaren espedientearen alde 1993.eko ekainaren 9an emandako 1610 Ebazpena, Tafallako hiriko Alkate Udaltzaren, 1993.eko ekainaren 24an emandako ebazpenaren bitartez, erabaki du: berari dagokionez, eskaturiko iharduera sailkaturako lizentzia ematea, Nafarroako Gobernuak Lurraldearen Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Departamentuaren idazkizun finantziario baldintzetan, beraz, bertan zehazturiko neurri zuzentzaileak bete beharko ditu.

Tafallan, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeitalauan. Alkatea, sinadura ulertezina.

A9303210

BAZTAN

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabost egunez, ondotik aipatzen den ihardueraren gaineko espedienteak, epe horretan ukituak gertatzen direnek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Eskatzailea: Manuel Ormart Garbalena. Iharduera: G.L.P.ren biltontzia. Tokia: Elizondo-Baztan.

Baztanen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita lau. Alkatea, sinadura ulertezina.

A9303211

BAZTAN

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabost egunez, ondotik aipatzen den ihardueraren gaineko espedienteak, epe horretan ukituak gertatzen direnek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Eskatzailea: Silvestre Azcona Iriarte. Iharduera: G.L.P.ren biltontzia. Tokia: Baztan-Irurita.

Baztanen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita lau. Alkatea, sinadura ulertezina.

A9303212

BAZTAN

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabost egunez, ondotik aipatzen den ihardueraren gaineko espedienteak, epe horretan ukituak gertatzen direnek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Eskatzailea: José María Garmendia Arizmendi. Iharduera: G.L.P.ren biltontzia. Tokia: Baztan-Elizondo.

Baztanen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita lau. Alkatea, sinadura ulertezina.

A9303213

BAZTAN

Iharduera sailkatua

Ingurugiroa babesteko iharduera sailkatuen kontrolari buruzko abenduaren 5eko 16/1989 Foru Legean xedatutakoa betetzeko asmoz, aditza ematen da Udaletxeko bulegoetan jendaurrean egonen dela hamabost egunez, ondotik aipatzen den ihardueraren gaineko espedienteak, epe horretan ukituak gertatzen direnek alegazioak aurkeztu ahal ditzaten.

Eskatzailea: José Gofí Irigaray. Iharduera: G.L.P.ren biltontzia. Tokia: Baztan-Oronoz.

Baztanen, mila bederatziehun eta laurogeita hamahiruko ekainaren hogeita lau. Alkatea, sinadura ulertezina.

A9303214